

Laudioko Udalak eta Gurutze Gorriak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu dute herriko haur zaugarrien alde indarrak batzeko.

- **Laudioko Udalaren eta Laudio Gurutze Gorriaren arteko lankidetzeta-hitzarmen bat gauzatu da haurrei laguntzeko jardueren garapena sustatzeko.**
- **Laudioko Udalak konpromisoa hartu du jarduera horien finantzaketaren zati batekin lankidetzan aritzeko Gurutze Gorriari 10.000 € emanez**

Joan den irailean, **Laudioko Udalaren eta Laudio Gurutze Gorriaren arteko lankidetzeta-hitzarmen bat gauzatu da haurrei laguntzeko jardueren garapena sustatzeko**, pandemiaren ondoren familia kalteberen premia larrienak aritzeko helburuarekin.

Gurutze Gorriak haurtzaroari, familiari, adinekoei, gizarteratzeari, osasunari, arlo sozio-sanitarioari, boluntarioritari eta prestakuntzari buruzko hainbat programa garatzen ditu herrian. Horien artean, haurrei laguntzeko programak 80 familia baino gehiago artatzen dituzte orain arte. **Lankidetzeta-hitzarmen horri esker, 0 eta 18 hilabete bitarteko seme-alabak dituzten familiei laguntzeko proiektuei jarraipena ematen zaie**, horretarako kitak ematen zaizkie, adingabeen elikadura- eta higiene-beharrak betetzeko. Horrez gain, eskola-arrakastarako proiektuari ere jarraipena ematen zaio. Txikitatik nesken eta mutilen eskola-errefortzua lantzea da proiektu horren helburua.

Akordio honen bidez, **Laudioko Udalak konpromisoa hartu du jarduera horien finantzaketaren zati batekin lankidetzan aritzeko Gurutze Gorriari 10.000 € emanez**, familien eskaerei erantzuna ematen jarraitu ahal izateko.

Hori guztia udaleko gizarte-zerbitzuen eta Gurutze Gorriaren arteko koordinazioarekin, jarduera sustatzeko eta laguntzeko.

Hitzarmenak urtero berritzea aurreikusten du.

Leire Alfageme De Arriba

Marka eta Komunikazio autonomikoaren arduraduna